

918 GAU

Santesteban: “Kanpokoan begiradaren arabera egindako zerbait da kartzela”

IRENE ELORZA GEREÑO

Donostia Zinemaldiko Ikusmira Berriak eta WIP Europa programetan parte hartu zuen Arantza Santestebanen (Iruña, Nafarroa. 1979) azken proiektuak, *918 gau* dokumentalak. Santesteban doktoregoa prestatzen ari da 2019az geroztik Lisboako Unibertsitatean, eta zinema-irudikapena, feminismoa eta euskal gatazka politikoa lotzen dituzten gaiak ikertzen ari den bere doktore-tesiaren zati praktikoa da bihar Zinemira Sailaren baitan aurkeztuko duen film luzea. Film onenaren Lisboa Hiria Saria Doctisboan, nazioarteko dokumental onenaren saria Torino Film Fest jaialdian, eta film onenaren Publikoaren Sari Berezia eta epaimahaiaren aipamen berezia Punto de Vista jaialdian jaso ondoren, bihar aurkeztuko du Zinemaldiko ikusleen aurrean.

Egunkari-collage tankerako dokumental honetan, Arantza Santestebanek 2007an ETArekin inguruarekin lotura izateagatik atxilotu eta espetxeratu zutenean hasi zen gartzelaldian bizitakoak eta bertan sortutako artxiboko materialak berrikusten ditu, orainalditik.

Film oso pertsonala eta ausarta osatu duzula iruditzen zait, nola sortu zen ideia?

Ez dakit ausardia den, uste dut zerbait esateko behar handi batetik datorrela. Banekien esatera nindoan hori deserosoa izan zitekeela, baina nirea sentitu dudana komunitate batekiko konpromiso moduko batekin hartu nuen. Garai historiko bati, orain nire ikuspegia, nire ekarpena egiteko konpromisoa nuen. Ardura sentitu dut eta horregatik kostatu zait hainbeste filma egitea. Ez zen bakarrik lotsagabetasuna, arriskua edo ausardia, uste dut hori esate-



GORKA ESTRADA

ko eta arduraz egiteko beharra zela gehiago.

Presoen inguruan ditugun hainbat uste sendo hankaz gora geratzen dira filmean. Esaterako, kanpotik presoak animatzera datozen gutunak eta argazkiek kontrako sentipena sorrarazi dezaketala erakusten duzu.

Asko kostatu zait hori esatea, zeren hor jokoan dagoena komunitate baten afektuzko harreman oso potentia baita. Besteari eustearen ariketa zoragarria da, eta uste dut, gaurko munduak daraman norabidearekin, aldarrikatu beharko genukeela ezkerreko etika batetik. Iruditzen zait gutun eta argazki horiek guztiak badutela hori atzean, elkarri eustearena; baina,

aldi berean, afektu horiek modu oso pautatua edo automatizatua pentsatuta daude, eta presoaren atzean (berdin zait politikoa edo arrunta) benetan zer dagoen, kartzelarekiko zer lotura dugun, askotan kanpokoan begiradaren arabera egindako zerbait da. Nik aldarrikatu nahi nuen bestaldean zer dagoen, are gehiago herri honetan asko erromantizatu delako preso politikoen irudia. Nire ustez, irudi horren atzean gauza asko egon daitezke, tartean, filmean kontatzen den hori: egonezina, ahultasuna edo deserosotasuna.

Edo desira eta egunerokotasuneko beste hainbat kontu.

Banekien gauza asko ahaztuko zitzaizkidalda, memoria selektiboa delako; baina nik ariketa bat egin nuen esateko: “Zer oroitzen du? Zer galdu du? Zer gelditu da benetan?” Adibidez, Rasha preso arruntaren istorioa oso potentea baita, argazki horietan kontatzen diren kontuak ere, eta sexua eta desira ere oso inportanteak iruditzen zaizkit. Preso bati kategoria hori, subjektu deseantea edo desiratu izan daitekeela, onartzea estrategia bat izan da.

Filma ez da atzera begirako bat, orainalditik kontatzen duzu bizitakoa eta zure egunerokotasun berriarekin nahasten duzu. Horren adibide dira hiru une berezi: sexu-harremana, dantza eta basoan zeharreko ibilaldia.

Filma egiterakoan arriskuak hartzen ari nintzela sentitu dudana uena izan da irudi horiek filmatzen ari nintzenean eta, ondoren, muntaian sartzeko orduan. Filmaren logika apurtzen dute, atera egiten zaituztelako. Apur bat bortitza da bat batean nola sartzaren diren, agian ikusle bezala ez dituzu ondo ulertzen baina erabaki

hori hartu nuen memoria ez delako lineala. Memoria fragmentatua dela uste dut, eta nire buruari lizentzia hori hartzen utzi nion. Egingo nuen filma ez zen lineala izango zeren nire prozesua ez da lineala izan inondik inora, oso mugitua, kaotikoa, jostaria izan da. Ondorioz, filmari forma hori emateko lizentzia hartu nuen. “Zer nahi du filmatu? Presoaren, militante politikoen, irudi erabat manikeo hori nola apurtu dezaket? Nola apurtu estereotipo edo eraikitako irudi hori?” Neure buruari esan nion: “Punki jarriko naiz eta filmatuko dut sexua, filmatuko dut trantze egoera bat festan dantzan, filmatuko dut Berlingo Treptower basoaren isiltasuna, zeren isiltasuna ere osagai oso inportantea izan baita, zeren nik oso bakarrik eta isilik bizi izan baitut prozesu hau.

Dokumenatara egiterakoan ez zara bakarrik egon, baina. Maddi Barber, Marina Lameiro eta Marian Fernandez izan dituzu alboan, besteak beste.

Maddi, Marina eta ni Iruñakoak gara eta lan asko egin ditugu elkarrekin, baita Irati Gorostidirekin ere. Hasierako ideia pentsatzetik dossierraino, beti dago modu naturalean ematen den elkarlan bat. Argi neukan film hau egin nahi nuela eroso egongo nintzen jendearekin. Ez nuen baldintzak jarriko zizkidan kanpoko inor nahi. Askatasuna behar dut. Gero Txintxua Films sartu zen, Donostia Zinemaldian. Zinemaldia prozesu honen atzean egon da hasieratik, Ikusmira Berriak deialdian parte hartu bainuen 2018an, eta ondoren WIP Europa programan sartu zen.

Oso lagunduta egon naiz eta egin nahi nuen filma egin dut oneoro. Erabaki guztiak askatasun osoz hartu ditut. Gaur egun, filma ikusi eta neure buruari galdetzen diot: “Nola utzi zidaten hau egiten?”


Aurrera zaituz eta aparkatu ezazu.

Adelantate aparcatu.

Sin ticket

Aparca con tu móvil

Descárgate la app



La Concha · Okendo · Boulevard
Plaza Cataluña · Atotxa · Plaza Easo

Los parking en San Sebastián, cada vez más necesarios.

telpark
Aparca y sigue